



“Nolabaiteko beharra sentitu behar da, kantuak sortzeko”

Aspaldian, oso aspaldian hurbildu zen Ruper Ordorika Deustu aldera. Filosofia ikasketak egin behar zituen unibertsitatean, eta bizi be San Inazio eta Deustun bizi izan zen.

Aspaldian, Deustun bertan sortu zuten Pott literatur aldizkaria eta banda Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Manu Ertzilla eta enparauekin. 80. hamarkada geroztik kantari ari da Oñatiko koblakaria, eta Prest! aldizkarian Garizumako haizea profitatu dugu, beragaz berba egiteko.



Aspaldian hurbildu zinen Deustu aldera, zelan oroitzen dituzu garai haiek?

Baditut Deustuko oroitzapen zehatz batzuk baina gehienak nahastuta ailegatzen zaizkit orduko militantzia eta arrisku giro batean... Gauza zehatzak gogoan dauzkat, esaterako, Bernardo Atxagarekin lehenengoz hitz egin nueneko Deustuko taberna batean, elizatik gora, Antonia edo zeritzana... Handik gauza asko atera ziren... Edo Sarrionandia eta biok oinez joaten ginean, ostegunero, Deustuko unibertsitatek Barrenkale Barreneko Cantabricora, Iñakiren tabernara Pott-eko bileretara... Zabor industrialez beterikako ibai alboko ibilaldi hura, ilunkeran...

Oñatitik Bitorixara, handik Bilbo aldera gero... zer topatu duzu bide bideotan, hiriz hiriz, edo solorik solo?

Neure hiriko auzoak bezala bizi izan ditut nik bizilekuok. Beti gorde izan dut Oñatirako maitasun handia baina hirietan hazitakoa naiz. Gaur egun are gehiago... auzo askotako hiri handi batean bezala bizi naiz herri honetan.

Egun New Yorken edo Azkaraten, berdin grabatu dezakezu disko bat.

Bai, eta gauza handia da hori! Niretzako mundu bera dira, nolabait. Askatasuna ahalik eta handiena behar izaten da sor-kuntza lanetan eta urruneko esperientziak askotan oso baliagarriak dira...Hori esanda, ez da ahaztekoa gaur egun oso graba-

zio onak egin daitezkeela norbere ganbaratik irten barrik!

Eta kantuak, jartzen dituzun kantuok non eta zelan sortzen dira?

Zein dute sorlekua?

Hori ez dakit. Hori banenki gehiagotan hurbilduko nintzateke bertara, sorleku horretara... Nire ustez nolabaiteko beharra sentitu behar da kantuak sortzeko, halako grina berezia.

Musikaren munduan murgilduta zaude azken hamarkada luzeetan, eta gogotsu ikusten zaizu oraindik. Zein duzu motiboa?

Bada, lehen aipatutako behar hori izango da, agian... Niretzako hau ikasbide bat besterik ez da eta ikasbide horren hasieretan nabil.

Azken disko hau eginda hasi naiz pentsatzen zer edo zer ikasi dudala jada eta zenbait gauza kontrolatzen dudala, baina sentsazio horrek irauten du hurrengo diskora arte. Orduan, berriz hasieran bezala sentituko naiz, bai.

Azken diskoan, Karibeko haizearen berri dakarzu, hango aireen doinuak... hango egoerak eta lagunak...

Bai azken ‘Haizea Garizumakoa’ hortako hiru kantu ditut Karibe aldean eginak... Nik uste dut igartzen dela baina ez formalki. Oraindik ez naiz hango kantu molde-tara hurbildu, ez formalki, ez erritmikoki, bistan da, kar, kar.



▷ ▷ **SAKONEAN**

**“Bernardo Atxaga,
Ramon y Cajaleko taberna
batean ezagutu nuen”**

**Aspaldiko kontuak izango dira
Deustukoak zuretzat.**

Gogoan dut zita bat nuela Atxagarekin, artean ez nuen ezagutzen. ‘Panpin ustela’ aldizkari batzuen dirua itzuli behar nion eta zita egin genuen Ramon y Cajal kaleko taberna batean, bertan ezagutu nuen. Gerora adiskidantza handia egin genuen. Sarrikoko ikaslea zen bera, Ekonomiketan. Joseba Sarrionandia eta biok Deustuko unibertsitatean genbiltzan eta eguenero joaten ginen Pott bandako bileretara, Alde Zaharrera oinez. Orduko Cantabrico tabernara, Iñakiren taberna zena.

Zein tabernatan biltzen zineten Deustun orduan?

Txorierriko andra euskaldun batek kudeatzen zuen taberna zen. Han bazkaltzen genuen sarritan, La viuda esaten zioten, eta oso ondo jaten genuen. Orduko Deustu hartan ordu asko pasatakoak gara gu. Kontuan hartu bertan bizi ginela gu. Sarri Ramon y Cajalen bertan, ni ere Deustun eta San Inazio bizi izan nintzen, gero Basauriko Pozokoetxera joan nintzen arren. Ikasi ere bertan egiten genuen, aspaldi, oso aspaldi. Halako oroitzapen zehatz batzuk badituz, baina ez gehiago.



Prest! 24an argitaratutako argazki montajea

**Zure ibilbidea ezagututa, koherentea da
disco hau ere, baina uste dut zure diskorik
konprometituena, pertsonalena dela,
oharkabean pasatu badaiteke ere.**

Deigarria egiten zait inguratu zaizkidan pertsona askok nola jaso duten disco hau, oso era emotiboan-edo. Nik ere halako zorabioa sentitu nuen lehen grabaketak burutu eta berehala: kantuak biluzik zeuden eta oso euskarri sendoekin baina bakanak soil-soilik. Uste dut horren puska bat gorde dela azken arte eta diskoa entzutean horixe jasotzen ahal dela. Alde horretatik badakar disko honek konpromisorik, bai. Oraindik oso goiz da, dena den, ‘Haizea Garizumakoa’ honen oihartzuna neurtzeko.

**‘Memoriaren mapak’ diskoaren zantzuak
ditu honek, baina zelan musika laguntzaile
onak dituzun, bandaren babesa ere badu.
Zelan ikusten duzu zuk?**

Bada, bai, nik uste dut baduela harremanik ‘Memoriaren mapak’-eko giro musikarekin, baina aurreko beste disko guztiekin ere bai. Kantuak bakarrik ontzen dituz

eta neure “alorra” ondo markatua da, beti ere. Disco honen abiapuntua, hau da, kantaria non jartzen den kantuan egiteko... hor bai, ezberdintasun handiak ikusten ditut hor, eta gaiari nola heltzen zaion ere ezberdina da, bai.

**Orain be, kontzertuetan zabilta, antzoki
eta kontzertu aretoetan. Jo behintzat,
jotzen duzu, ezta?**

Bai, bagabiltz batetik bestera... gero eta hobeto pasatzen dut kontzertuetan eta horrek asko balio du! Mundu guztiak esaten du aurten urte latza izango dela zuzeneko musikarako. Ikusiko. Halakoak entzun

izan ditugu ni kantuan hasi nintzenetik, behintzat. Baina egia da, zuzenekoetan ontzen da musika, gehien bat.

**Bilbon zaitugu aurki, publiko fidela duzu
bazterrotan. Gustura zatozela ematen du,
zuzenekoak be bertan grabatzen dituzu
eta...**

Bai, Kafe Antzokiara goaz eta pozik. Behin eta berriro esaten dudanez, etxean bezala jotzen dugu han eta hala bedi luzaro. Neure zuzeneko disko biak bertan grabatuta daude eta ez kasualitatez. Ni Bilbon hasi nintzen kantuan eta urteroko hitzordua gordetzen saiatzen naiz.



**“Gero eta
hobeto
pasatzen dut
kontzertuetan
eta horrek asko
balio du!”**